

Beskoitze

Aurkibidea

Udalerria: Beskoitze

Sarrera



Lapurdiko Ekialdea izeneko eskualdean dago kokatuta. Urketa, Ahurti, Hazparne eta Mugerre herrieekin egiten du muga. Herriko ekonomia laborantzan dago oinarriturik.

- **Biztanleak:** 2.637
- **Euskaldunak:** %17,44

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **20**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **16**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Jean Ameztoi (1875)

1875eko urtarrilaren 1ean sortu zen Jean AMESTOY, Beskoitze Uhagunea laborari etxean. Gurasoak laborariak zituen, biak beskoiztarrak. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 38 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Apaiza zen eta Historia irakasle jarduten zuen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.181

Baptiste Darricau (1867)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 46 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Ostalaria izan zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.182

BES-002 Hizlari ezezaguna (1956)

BES-003 Hizlari ezezaguna (1924)

BES-004 Hizlari ezezaguna (1924)

Gratien Jocou (1935-2022)



Beskoitze Aranbidea laborari etxean sortu zen Gratien 1935. urtean. Laborantza zen orduan herriko ogibide nagusia, baita gurasoena ere. Bide hori jarraiki zuen berak ere eta sortetxearen segida hartu zuen. Etxean euskara mintzatzen zuten, baina frantsesa ere amarekin ikasia zuten, emaztekiak Parisen ikasi zuelako sehi zenean. Aljerian egon zen Zerbitzu militarra denboran. Biarritzen hil zen Gratien 2022ko maiatzaren 9an, 87 urtetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Haurtzaroko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Ameztoi, Jean
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BES-005/001
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:59
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Hitzunak bere haur garaiko kontuak kontaktzen ditu pasarte honetan.

Transkripzioa

Sorthu nintuzun amaan altzotik, johan zelaikan Espaiñaat, beste ahizpa'aten ikhusteat. Nola treinin ezpeizen behinee izan ene ama, orduian ni sorthu behar izan harrek uste ziin bano goizoo. Geo Bayonaat jin guitzuzun treinin eta hortik en'etxeat orgetan, ezpitzen eun bezinbat karrosa. Etxeat eta geo, ama elizan sarthu zenin aphezak erran zakozun: "A Kattalin! ein duzu oano ee kattalinkeria!". Eta nik geoztik jakinez geoz: "Etzauntazun kattalinkeria ene sortzia!".

Geoztik hunat abiatu eskolan; ez biziki ikhasi, bana denboaren phasteko plantan. Geo hasi nintuzun giletan eta pilotan. Zonbeit partida ein beitut! Batzuutan iraaaz eta beze batzuitan gal. Hola juana'uzu ene denboa hein huntaaino, eta agian joan duzu hola hola aitzina bethi.

Orei, jokua ttipitzian, khantuiak atxiitzen dautazu eta lakhet bita denboaren phasteko enetzat eta ene launentzat. Heeneun Elizaarrin beinintzen phestan, behartu zatazu, beinakiin zeait. Berzanez etzizien ene launek phastuko denboa ein tzuten bezin gostuian...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. "Laphurdi huntan bada bersulari anhitz"

- **Hizlaria(k):** Darricau, Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BES-006/001
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:34
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Laphurdi huntan bada bersulari anhitz" bertsoa kantatzen du.

Transkripzioa

Laphurdi huntan bada bersulari anhitz
Katxo uztaritzarra Beskoitzen Felitz
Bettiri jatsuiarra hasia da irriz,
Azparneko Xetre, zerbeit izan aldiz,
Motte erakuts erhiz, Jean Ibar ar'irriz,
Saretarra berriz, zare mintzo lodiz,
Otsalde khantu emaiten zahartu ez balitz .

2.2. "Frantziako errege banintz"

- **Hizlaria(k):** Darricau, Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BES-006/002
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:01:21
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Frantziako errege banintz" bertsoa kantatzen du.

Transkripzioa

Frantziako errege banintz, Luis Felipe bezala,
Mement berian enseia naite zuri gorthe egitera:
Jaun Jeinkoak berak erran balezat berehala hilen nauela,
zz nio kita zure ganako amodio fidela
ixuri arterainokuan zainetan dudan odola.

2.3. "Mundu hau bethia da kalitate oroz"

- **Hizlaria(k):** Darricau, Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BES-006/003
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:01:21. **Bukatu:** 00:01:43
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Mundu hau bethia da kalitate oroz" bertsoa kantatzen du.

Transkripzioa

Mundu hau bethia da kalitate oroz,
batzu irusak eta berziak maleros:
Anhitzak ezkontzen dira adineraz geroz,
bihotza bethe gabe amodio beroz,
Gero [ez maithatzekotan esposik ez eros.]

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Beskoitzen gehienbat euskaraz (BES-001/002)

Gratien txikia zenean hizkuntza nahasketa zegoen Beskoitzen. Oroitzen du bazirela frantsesez bakarrik mintzaten ziren familiak. Hauek katixima ere frantsesez egiten zuten. Etxean elebitan egiten zuten, euskaraz eta frantsesez. Eskolan euskaraz hitz egitea punitzen zen.

2. Laborantzatik bizi (BES-001/003)

Jende gehiena laborantzatik bizi zen herrian. Gaur egun baino askoz ere laborantza etxe gehiago zegoen Gratien haurra zenean. Oso ohikoa zen etxerako laborantza egitea.

3. Lehengo laborantza (BES-001/004)

Ogia, artoa, abereak... ohikoak ziren garai bateko etxeetan. Laborantza egiteko modua asko aldatu da. Behiak zituen Gratienek etxean. Haurra zelarrik, ogia etxean egiten zuten. Urdeak ere izan ohi zituzten.

4. Ur gaziak Beskoitzen (BES-001/006)

Beskoitzen ur gaziak zirela eta jende asko mugitu zen herrira, baita Baiona ingurura ere.

5. Hiru eskola Beskoitzen (BES-001/008)

Herrian 3 eskola ziren. Gratien eskola laikoan ibili zen. Eskolen artean hikamikak egon ohi ziren. Beskoitzeko plazan neska gutxi egoten zen. Plazan bazkaltzen zuten Beskoitzeko plazako eskolara joaten ziren ikasleek.

6. Amak eta amatxik asko bidaiatu zuten (BES-001/009)

Aitatxi eta amatxirekin bizi zen Gratien. Amatxik istorioak kontatzen zizkien etxekoei. Amatxiren ahizpa askotan joaten zen haien etxera. Honekin frantsesez egiten zuen amatxik. Beskoitzen lan falta zela eta, ohikoa zen Parisera lanera joatea. Gizonak bertan gelditu ohi ziren.

7. Beskoitzen toka nagusi (BES-001/011)

Beskoitzen oso ohikoa zen toka-noka aritzea. Zuka kanpotik etorritakoek egin ohi zuten. Aitari eta amari zuka egiten zieten. Neskekin, ordea, xuka.

8. Meza ondoren, ostatura (BES-001/013)

Beskoitzen ostatu gehiago zeuden garai batean. Plazan bertan hiru zeuden, eta herrian zehar beste zazpi bat. Igandetan joan ohi ziren gizonak ostatueta.

9. Etxeetan ardoa egiten zen (BES-001/015)

Ardoa eta kafea zen ostatueta edaten zena orokorrean. Etxe gehienetan mahastiak egoten ziren etxeko ardoa egiteko. Ama Baionara joaten zen saltzera.

10. Beskoitzeko jaiak (BES-001/018)

Beskoitzeko jaiak bi egun irauten zituzten, igande eta astelehen. Pilota partidua, bertsolariak, meza... egon ohi ziren ospakizun moduan.

11. Aita 39ko gerlan (BES-001/019)

Alemaniarrek egon ziren Beskoitzen gerra garaian. Beskoitzeko plazan egon zirela oroitzen du. Aita gerlara joan zen 39ko gerlan, eta kolpatu egin zuten han.

12. Herria bitan zatiturik (BES-001/020)

Alemaniarrek herrira sartzean herria bitan zatitu zen, haien alde eta hain kontra zeudenen artean.

13. Zerbitzu militarra Algerian (BES-001/022)

Algerian egin zuen Gratienek zerbitzu militarra. Errebisio baten ondoren, deitu egin zioten zerbitzu militarra egiteko aukeratua izan zelako. 28 hilabetez egon zen Algerian. 3-4 ziren euskaldunak.

14. Algerian izandako bizi (BES-001/024)

Algerian zerbitzu militarra egin zueneko garaia. 28 hilabete pasa zituen han, eta bi aldiz izan zuen etxera itzultzeko baimena. Momentu arriskutsuak ere bizi izan zituen han.

15. Beskoitzeko gatzaren istorioak (BES-001/026)

Beskoitzeko istorio bat dago, herrian gatza fabrikatzearen ingurukoa.

16. Garai batean auzolana nagusi (BES-001/028)

Garai batean gehiago ikusten zuten elkar auzokoek, auzolanean, elizan, abere-hiltzean... Norbait hiltzen zenean ere auzokoek hildakoa bisitatzeko zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com